EBAZPENA, ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUKO ZUZENDARIARENA, 2019KO AZAROAREN 4AN DEITUTAKO ALDI BATERAKO LAN-POLTSAK INDARGABETZEN ETA ARTXIBATZEN DITUENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA. — Zuzendaritza honen ebazpen bidez, Etxepare Euskal Institutuko langileen aldi baterako beharrak betetzeko, Komunikazio, Prentsa eta Interneteko arduradun eta Euskara eta Euskal Kultura Sustatzeko eta Zabaltzeko teknikari lanposturako lan-poltsak handitzeko oinarri arautzaileak onartu ziren, eta 2019ko azaroaren 4an argitaratu ziren. Prozesu horren kudeaketa teknikoa Campo & Ochandiano enpresari agindu zitzaion.

2020ko otsailaren 6an argitaratu ziren behin betiko zerrendak eta izangaien hurrenkera eta lan-poltsak hurrengo egunean jarri ziren indarrean.

BIGARRENA. — Oinarri horien lehenengo klausulan indarraldiari buruz beren-beregi ezartzen zen: "Lan poltsaren zabaltze horrek 3 urteko iraupena izango du, eta luzagarria izango da.".

HIRUGARRENA. — Oinarri arautzaileetan aurreikusitako hasierako 3 urteko epea soberan igaro da, eta Erakunde honek luzapen formal eta espresurako akordiorik edo ebazpenik hartu ez duela egiaztatu da.

LAUGARRENA. — Lan-poltsa horien deialdiei lotutako lan-harreman aktiborik ez dago, ezta horien ondoriozko deialdirik ere.

ARAUDI APLIKAGARRIA

LEHENENGOA.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

BIGARRENA.- 11/2022 LEGEA, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.

HIRUGARRENA. Giza baliabideak antolatzeko eta kudeatzeko eskumenak, zuzendari honi esleitutakoak 2008ko maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuko 6.4 artikuluan.

LAUGARRENA. Deialdiaren oinarriak berak, zeinak lehenengo klausulan lan-poltsaren iraungitze-epea eta indarraldia finkatzen dituena.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA. — Eskumena. Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak 6. artikuluko 4. apartatuan dio Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak zehaztuko duela zein den lanpostuak betetzeko erregimena, baldintzak eta aukeraketa saioen ezaugarriak, eta zein lanpostuak betetzeko eta sustapen profesionalerako prozeduren deialdia, kudeaketa eta ebazpena, merezimendu-, gaitasun-, berdintasun- eta publizitate-irizpideekin bat etorriz.

BIGARRENA. — Epea amaitu delako azkentzea. Sektore publikoko aldi baterako hautaketa-tresnak behin-behinekotasunaren eta eraginkortasunaren printzipioari lotuta daude. Oinarriek aldez aurretik ezarritako indarraldia ezartzen dutenean, berariazko luzapenik egin gabe, eta lan-poltsaren azken kontratua amaitu ondoren lan-poltsaren jarduera amaitu denean, iraungi egiten da tresna, indarraldia bete delako.

HIRUGARRENA. — Segurtasun juridikoaren eta gardentasunaren printzipioak. Lan-poltsa osatzen duten pertsonen segurtasun juridikoa eta Erakunde honen enpleguaren kudeaketaren gardentasuna bermatzeko, bidezkoa da formalki indargabetzea eta, ondorioz, espedientea ixtea.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

LEHENENGOA. — 2019ko azaroaren 4an deitutako lan-poltsen indarraldia amaitu dela adieraztea eta, ondorioz, Prentsa eta Interneteko presentzia arduradun eta Euskara eta euskal kultura sustatzeko eta zabaltzeko teknikari lanpostuak betetzeko 2020ko otsailaren 7an eratutako lan-poltsak ondoriorik gabe uztea.

BIGARRENA. — Lan-poltsa horietako espedienteak behin betiko ixtea eta artxibatzea, datu pertsonalak behar bezala zaindu eta tratatuko direla bermatuz, datuak babesteko indarrean dagoen araudiaren arabera.

HIRUGARRENA. — Ebazpen hau langileen legezko ordezkaritzari jakinaraztea, eta erakundearen web-orrian eta iragarki-taula elektronikoan argitaratzeko agintzea, guztiek horren berri izan dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Haren aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote interesdunek Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita..

Donostian, sinaduraren datan

44126933F IRENE LARRAZA (R: V20999827)

44126933F IRENE LARRAZA (R: V20999827)
c=ES, o=ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA, 2.5.4.97=VATES-V20999827, 2.5.4.13=manifiesto firmado, ou=Ordezkari ziurtagiria - Certificado de representante, cn=44126933F IRENE LARRAZA (R: V20999827), givenName=IRENE, sn=LARRAZA AIZPURUA, serialNumber=44126933F
2026.11.04 12:55:08 +01'00'

Irene Larraza Aizpurua
Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria